

## 1. DENBORA/PARTE HARTZEA/INIZIATIBA

- Iniziatiba nork hartzen du normalean?
  - Hitz egitean
  - Proposamenak botatzean
  - Antolaketa edo akzio beharra dagoen momentuetan
  
- Iniziatiba falta dutenek zergatik da?
  - Hitz egiteko tarterik ez dagoelako
  - Nahi ez duelako (hala erabaki duelako edo interes, motibazio ... falta)
  - Beste pertsonen proposamenak indartzen/kontutan hartzen/balioa ematen zaielako izan daiteke? Hala bada, noren proposamenak indartzen dira gehien bat? eta maiztasun handiz izaten da?
  
- Elkarrizketak mozteko joerak:
  - Nola moztu da? Nori?
  - Moztu duenak zein jarrera dauka? Hitz egiten segitzen du ala bestearen txanda errespetatzen du?
  - Moztu duenari jarraitzen uzten diogu? Ala isiltzeko esaten zaio?

## 2. TONUA

- Ahots bat beste baten gaintetik gailentzen al da? Zein unetan ematen da?
- Genero batekoa ala beste batekoa izan, tonuari dagokionez, interakzioak ematean ezberdintasunik nabaritzen da lantaldean?
  - Elkarrizketetan
  - Agurretan
  - ...

## 3. ARDUREN BANAKETA (Rolak)

- Lan banaketa egiterako orduan, generoaren arabera diskriminaziorik egoten da? (suertatu daitezkeen rol ezberdinak zerrendatu eta nola banatu da?)
- Lan eta ekintzetan rolen banaketa kontutan hartzen da koordinazio bileratan?
- Rolen txandakatzea denon artean adosten dugu?

## 4. HIZKUNTZA (ahozkoa zein idatzizkoa- gutun, kartel ...)

- Sexu genero sistemak aitortzen duen bi generoen interesak asetzen ditugu testuinguruak hala eskatzen duenean?
- Gazteez hitz egiten gabiltzanean, bi generoen ideia hori hausten saiatzen gara eta intersexualak izango balira bezala tratatzen ditugu?
- Normalizat erabiltzen ditugun irainak sexistak dira? Nolakoak erabiltzen ditugu? Bota eta gero, hausnarketa dator?

**\*5 gorputz jarrera. KINESTESIKOA**

- Zein gorputz jarrerarekin sartu eta egoten gara bileretan?
- Mahai gainean espazioa nola banatzen da?
- Elkarrizketa gurutzatuak ala, igorle eta hartzaile bat baino gehiago daudenean, begiradekin nor indartzen da? Edo nori begiratzen zaio gehien?
- Ba al dago zerikusirik begirada, genero eta lantzen gabiltzan gaiaren artean?